

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bolantean arreta galtzeak zaintzeko eta kontrolatzeko kanpaina berria urriaren 15etik 21era

Bolantean arreta galtzea behin eta berriro errepikatzen den faktorea da biktimak eragindako istripuen %30ean

Osteguna, 2018.eko urriak 11

Bolantean arreta galtzea behin eta berriro errepikatzen den faktorea da biktimak eragindako istripuen %30ean. Urriaren 15etik 21era, Foru Poliziako, Guardia Zibileko eta Udaltzaingoko langileek kontrolak burutuko dituzten Nafarroako errepideetan, gidatzen ari den bitartean arreta ez galtzearen garrantziaz kontzientziatzeko helburuarekin.

Osatutako azterketa desberdinen arabera, mugikorretik minutu eta erdiz hitz egiten egon ondoren (baita esku libreko telefonoz ere) gidariak ez du seinaleen %40 atzematen, bere batezbesteko abiadura %12an jaisten da, bihotzaren erritmoa bortizki bizkortzen da deiaren bitartean, eta erreakzionatzeko denbora gehiago behar da. Hau eta arreta galtzen den bestelako egoerak, esaterako, mezularitza zerbitzuak erabiltzea (whatsapp eta bestelakoak), GPS programatzea, irratia programatzea edo bolantean erretzea, zaintza eta kontroleko kanpaina berri honen xede izango dira.

Trafikoan arreta galtzeak eragindako istripuak saihesteko helburuarekin, besteak beste, bidetik ateratzea, talka harrapatzeagatik, Bide Segurtasuneko Nafarroako Estrategiatik gogora ekarri dute gidatzen ari garen bitartean oso adi egoteak berebiziko garrantzia duela, Nafarroako Gobernuak udan, "Mugikorrek beti itxaron dezake, zeure bizitzak ez" goiburupean, sutatutako kanpaina instituzionalean azpimarratu zen bezala.

Burututako kontrolak

Irailaren 24 eta 30 artean burututako drogak eta alkohola zaintzeko eta kontrolatzeko azken kanpainan, gidarien %1ak positiboa eman zuen alkohol kontsumoan; eta %16ak, berriz, drogen kontsumoan. Foru Poliziako, Guardia Zibileko eta Udaltzaingoko langileek, guztira, 7.453 alkoholemia kontrol eta drogen kontsumoko 213 froga egin zituzten.